

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 3/2021

ERABAKIA, (...) ANDREAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA. GAIA: TXERTAKETA-PROTOKOLOEN BALIZKO EZ-BETETZEEN BERRI IZAN ONDOREN EGINDAKO JARDUKETEK ETIKA- ETA JOKABIDE-KODEA BETETZEN DUTEN.

1.- 2021eko otsailaren 3an, (...) andreak bidalitako mezu elektronikoa jaso zen Etika Publikorako Batzordearen (EPB) posta elektronikoko postontzian. Mezu horretan, kontsulta bat egin zion Etika Publikorako Batzorde honi, ea txertaketa-protokoloen balizko ez-betetzeen berri izan ondoren egindako jarduketa batzuek Eusko Jaurlaritzako kargudunen Etika eta Jokabide Kodea urratzen duten jakiteko.

2.- Interesdunak idazki horretan azaltzen duenez, bizi dugun pandemia-egoerak nabarmen areagotu du osasun publikoko sistemaren gaineko presioa, eta, horren ondorioz, baliabide, protokolo eta jarduketa-irizpide berriak jarri behar izan dira COVID-19ari aurre egiteko, hala nola Biziberri II Plana, ZIUko ohe gehiago prestatzeko 5 agertokiren diseinua, eta birusaren arriskupean dauden kolektibo kalteberenei txertoa jartzeko irizpideak.

Txertaketari dagokionez, gaineratzen du Osasun Ministerioak emandako jarraibide batzuk daudela, eta, jarraibide horien arabera, birusaren aurkako txertoa jasotzeko, egoitzetan dauden adinekoak eta egoitzetako langile soziosanitarioak daudela lehentasun-hurrenkeran lehendabizi, eta osasun langileak haien ondoren.

3.- Era berean, azaltzen duenez, (...) Sailak eta (...)k zenbait dokumentu egin zituzten txertoen ezaugarriei (fitxa teknikoa, kontraindikazioak eta balizko ondorio kaltegarriak) eta langileen txertaketa-programari buruz, eta osasun-zentroetako arduradunei eta langile guztiei helarazi zizkieten.

4.- Interesdunak adierazten duenez, geroago, (...) Sailak eta (...)k txertaketa-protokoloen balizko ez-betetzeen berri izan zuten, bai (...)ean, bai (...)ean.

5.- (...)ari dagokionez, 2020ko urtarrilaren 19an jakin zuen (...)ko zuzendari kudeatzaileak txertoa hartu zuela eta, gainera, ez zuela bete zentro horretan egindako txertaketa batzuk erregistratzeko betebeharra.

Egoera horren aurrean, (...)ko zuzendari nagusiak, (...)a jakinaren gainean eta ados zela, gertakari horien erantzukizuna bere gain hartzeko eskatu zion (...)eko zuzendari kudeatzaileari. Hala egin ez zuenez, kargutik kendu zuten, harenganako konfiantza galdu zutelako.

6.- Egun horretan bertan, urtarrilaren 19an, (...)eko zuzendari kudeatzaileak jakinarazi zuen "ospitale osoari" jarri zitzaiola txertoa. Orduan, (...) Saila eta (...) konturatu ziren akatsen bat gertatu zela, eta informazioa biltzen hasi ziren.

(...)ak bere idazkian adierazten duenez, (...)eak eskatutako dosi-kopurua bidali zuen (...) Sailak, eta kopuru hori handiagoa zen aldeaz aurretik ezarritako eta zentroak jakindako protokoloaren arabera zegokiona baino.

7.- (...)ko zuzendari nagusiak berak txertoa jarrita zuela egiaztatu ondoren, (...)ko zuzendari nagusiak, (...)a jakinaren gainean eta ados zela, aurreko kasuan bezala, protokoloan ezarritako aurreikuspenetatik kanpo txertatzeagatik zuen erantzukizuna bere gain hartzeko eskatu zion (...)eko zuzendari nagusiari. Kasu horretan, zuzendari nagusiak lanpostuari uko egin zion, eta onartu egin zitzaion.

8.- Interesdunak kontsulta bat helarazi dio EPB honi, ea balizko txertaketa irregularren berri izan ondoren egindako jarduketaren batek Eusko Jaurlaritzako kargudunen Etika eta Jokabide Kodea urratzen duen jakiteko.

9.- Hori horrela, hauxe da EPB honek, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.4. atalaren bigarren idatzi-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, aho batez hartu duen

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, zeina egun jasota baitago 2016ko azaroaren 22an onartutako Testu Bateginean. Kode hori sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeke erronkari erantzutea izan zen.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezten dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza galdu ez dadin ahalegintzea.

2.- Bestalde, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen helburua da eginkizun publiko horiek betetzen dituenak betebeharrak etikoa betetzea, bai eta betebeharrak soziala ere, gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen konfiantza legitimoa babestu nahi baitu, bai eta bizitza politikoan duen jardunaren gardentasuna ere.

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsua du: kargu Publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Bere asmoa ez da soilik babestu eta bermatu nahi den zerbitzari publikoaren eredia azaltzea edo horri buruzko informazioa ematea; izan ere, testu arauemailea da, eta, legearen indarrez, karguari dagokion funtzio publikoa egikaritzean bete beharreko betebeharrak ezartzen ditu.

Ildo horretatik, EJK-k bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia, kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak arautzen dituena.

Era berean, 2/2014 Legeak kargu publikodunaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko, eta horren arauketa egungo EJK-n jasotzen da.

3.- EJK-k oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta

objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek erreferentzia-parametrozat hartu behar ditu gai eta zalantza etikoei erantzun beharra egokitzen bazaio, beren borondatez kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonen halakorik helaraziz gero.

4.- Horretarako, EJKren 16.3.1. d) atalak ezartzen du EPBren eskumena izango dela “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako eta haren sektore publikoko kargu publikodunek eta beste edozein instantziak Etika eta Jokabide Kodearen aplikazioari buruz egindako kontsultak ebaztea”.

II.- EPB-k aztertzeko aurkeztutako gaia.

1.- (...)ak EPB honi bidalitako idazkian eskatzen du batzordeak azter dezala ea Etika eta Jokabide Kodea urratu den, (...)ko eta (...)etan txertaketa-protokoloen balizko ez-betetzeen berri izan ondoren (...)ak berak egindako jarduketetan.

(...)a, 1/2014 Legearen 2.1 b) artikuluan ezarritakoaren arabera eta EJKren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, aipatutako legearen aplikazio-eremu subjektiboaren barruan sartzen da, eta, ondorioz, EJKren mende dago, zeinari indibidualki atxiki zitzaion 2020ko irailaren 20an.

EPB honi soil-soilik dagokio (...)ak aztertzeko aurkeztutako gaia ebaluatzea eta bere jarduna EJKren arabera izan zen zehaztea.

2.- Irizpena emateko aurkeztu diguten gaia aztertu baino lehen, aipatu behar da, gure 1/2019 Erabakian adierazi genuenez — aurreko 4/2015 eta 8/2015 Erabakietan aipatutakoa gogorarazten zuen, aldi berean —, EPB honek ez duela botere mugagaberik etikaren esparruan eragin zuzena edo zeharkakoa duen giza bizitzako edozein alderdiri buruzko irizpena emateko. Bere zeregina askoz ere xumeagoa eta egingarriagoa da: EAEko sektore publikoko kargu publikodunak EJKn finkatutako jokabidera egokitzen diren ala ez jakiteko egiten zaizkion kontsultak eta salaketak ebaztea. Ez da bere eginkizunetan sartzen batzordearen irizpenaren esku jarritako jokabideak absolutuki etikotzat jo daitezkeen ala ez erabakitzea, baizik eta jokabide horiek EJKn ezarritako balio, printzipio eta jokabideen kontrakoak diren zehaztea.

3.- Interesdunak EPB honi igorritako idazkian azaltzen duenez, bizi dugun pandemia-egoera dela-eta, hainbat neurri eta protokolo hartu behar izan dira, baita COVIDaren birusaren arriskupean dauden kolektibo kalteberentzako txertaketa-irizpideak ezarri ere.

(...) Sailak eta (...)k zenbait dokumentu egin zituzten txertoen ezaugarriei (fitxa teknikoa, kontraindikazioak eta balizko ondorio kaltegarriak) eta langileen txertaketa-programari buruz, eta osasun-zentroetako arduradunei eta langile guztiei helarazi zizkieten.

Halaber, txertaketari dagokionez, gaineratzen du Osasun Ministerioak emandako jarraibide batzuk zeudela, eta, jarraibide horien arabera, birusaren aurkako txertoa jasotzeko, egoitzetan dauden adinekoak eta egoitzetako langile soziosanitarioak zeudela lehentasun-hurrenkeran lehendabizi, eta osasun langileak haien ondoren.

4.- 2021eko urtarrilaren 13an, (...)ko Giza Baliabideen Zuzendaritzak dokumentu bat igorri zion (...)ko Segurtasun eta Osasun Korporatiboko Batzordeari, profesionalak SARS-CoV-2ren aurka txertatzeko planari buruzko informazioa emateko.

Dokumentu horretan, besteak beste, lehentasunak ezartzen ziren langileen programazioan, Ministerioak lehendabizi "lehen lerroko" profesionalak txertatzeko emandako gomendioei jarraituz, eta kontu hartzen zen zerbitzu osoak ez zitatzeko: txertaketaren hasierako fasean gomendatzen zen zerbitzu edo unitate bakoitzean "ez gainditzea % 50a eta langileen herenaren eta erdiaren arteko mailari eustea, % 33-50 bitartean".

Ehuneko hori ezartzearen arrazoia zera zen: txertoak edo sortaren batek ondorio kaltegarriren bat eraginez gero, plantilla osoak kalterik ez jasatea, eta, hartara, herritarrei zerbitzua bermatzea.

5.- (...) Sailak eta (...)k 2021eko urtarrilaren 19an jakin zuten (...)ean eta (...)ean txertaketa-protokoloen balizko ez-betetzereen bat izan zela, eta bi (...)eako zuzendari kudeatzaileek txertoa jarri zutela.

2021eko urtarrilaren 20an, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean egindako agerraldiaren transkripzioan jasotzen denez, (...)ak zirkunstantzia hori aipatu zuen:

"Nire hitzaldia amaitzeko, ohar bat egin nahi nuke. Txertoen hartzaileak nor diren jakiteko protokoloak argiak eta zorrotzak dira. Helburua da talderik kalteberenak edo arriskurik handiena dutenak txertatzea. Hori beti eta aitzakiarik gabe errespetatu behar da. Protokolo horien balizko ez-betetzei buruzko informazioaren berri izanda, atzo bertan barne-ikerketak bat hasi zen, eta ondorioztatu behar dugu, gaur gaurkoz, mahai gainean ditugula dimisio bat eta kargu-uzte bat".

Hau da, txertaketa irregularren berri izan eta hurrengo egunean, (...)a Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean agertu zen, eta adierazi zuen barne-ikerketak bat hasi zela eta bi (...)etako zuzendari kudeatzaileek ez zutela jada erantzukizun hori.

6.- Urtarrilaren 27an, (...)a berriz agertu zen Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean, eta, egoera epidemiologikoaren berri eman ondoren, (...)ko eta (...)etako zuzendaritzen kargu-uzteari buruzko informazioa eman zion batzorde horri, bai eta Osakidetza erakunde osoan langileen txertaketa-prozesuari buruzko jarraibideak betetzearen inguruan egindako azterketaren emaitzari buruzkoa ere.

Agerraldi horretan berriaz adierazi zuenez, ospitaleetako eta Osakidetzako erakunde sanitario integratuetako zuzendariak dira antolaketaren eta kudeaketaren arduradun nagusiak, Osakidetzaren ordezkariak dira, eta pertsona horiengandik espero da erakundearen irizpideak eta jarraibideak betetzea, eta, kasu honetan, eredugarritasuna.

Gaineratu zuenez, *“bi zuzendari kudeatzaileei erantzukizunak eskatzeko arrazoia izan zen ez zegoenean txertoa jarri izana”*.

7.- Ondoren, kontakizun kronologikoa egin zuen, gertaerena eta (...) Sailak eta (...)k adostutako txertaketa-irizpideak justifikatu gabe bete ez ote ziren jakiteko erakunde osoan egindako ikerketen emaitzena.

8.- (...)eari dagokionez, (...)aren agerraldian adierazten denez, (...) Sailak eta (...)k urtarrilaren 19an komunikabide baten bidez jakin zuten, hilaren 3an, igandean, soberako dosiak eman zitzaizkiela(...) horretako bi -zerbitzu-arduraduni, bai eta zuzendari kudeatzaileari ere; halaber, jakinarazi zuen txertoak ez zirela erregistratu, txertaketa-ekintza orok eskatzen duen moduan.

Komeni da gogoraraztea data horretan bazirela, eskura zegoen txerto-dosien arabera, Osasun Ministerioak txertaketarako ezarritako lehentasun-irizpideak:

1. Adinekoen eta mendekotasun handia duten pertsonen egoitzetako egoiliarak eta haietan lan egiten duen pertsonal sanitario eta soziosanitarioa.
2. Eremu sanitario eta soziosanitarioan lehen lerroan diharduten langileak.
3. Bestelako langile sanitario eta soziosanitario batzuk.
4. Mendekotasun handikotzat jotzen diren (III. mendekotasun-maila, hau da, laguntza-neurri handien premia dutenak) eta gaur egun instituzionalizatuta ez dauden pertsonak.

Une horretan Osakidetzan txertaketa-protokolorik ez bazegoen ere, Osasun Ministerioak ezarritako lehentasunak argiak eta jakinak ziren: egoitzetan txertoa jarri ondoren, COVIDa duten edo ez duten pertsonen zuzenean arreta ematen dieten osasun-langileak txertatuko ziren.

9.- Horren ondorioz, (...)ko zuzendari kudeatzaileari zegokion erantzukizuna bere gain hartzeko eskatu zitzaion. Hala egin ez zuenez, urtarrilaren 20an kargutik kendu zuten, harengan konfiantza galdu zutelako; era berean, txertoak zergatik ez ziren erregistratu jakiteko informazio-espeditze bat irekitzea erabaki zen.

10.- (...)eari dagokionez, urtarrilaren 19an jakin zen txertaketa irregularra gertatu zela. (...)eko langile guztiek hartu zuten txertoa, zuzendari kudeatzaileak barne, bai eta zentrotik kanpoko beste langile batzuek ere: ordezkari sindikalek, zerbitzu erlijiosoetako langileek, kafetegia ustiatzen zuen enpresako kanpoko pertsonen, vending enpresako kanpoko pertsonen eta mezularitza-paketeria enpresa bateko kanpoko bi pertsonak. Hortaz, ez ziren bete Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak ezarritako irizpideak.

Aurretik, urtarrilaren 13an zehazki, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak gutun bat bidali zion Osakidetzako Segurtasun eta Osasun Batzorde Korporatiboari, txertoa emateko lehentasun-irizpideen berri emateko.

Idazki horretan, gainera, adierazten zen txertaketak inpaktu handieneko zerbitzuen irizpideari jarraitu behar ziola, eta agendak ahalik eta hobekien doitzen jarraitu behar zela, irizpide hauen arabera:

Hasierako fasean zerbitzu edo unitate bakoitzaren zati bat sartzea (ez gainditzea % 50a eta langileen herenaren eta erdiaren arteko mailari eustea, % 33-50 bitartean).

11.- Egoera horren berri izan ondoren, zuzendari kudeatzaileari eskatu zitzaion zegokion erantzukizuna bere gain hartzeko, eta hark uko egin zion karguari.

12.- EJK-k kargu publikodunei eska dakizkiekeen jokabideak eta portaerak identifikatu nahi ditu, haien ekintzak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezten alde aurretik finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Helburua da erudugarritasuna sustatzea integritatearen bidez, erakundearen irudia babestea, erakundearen eraginkortasuna indartzea eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza inolaz ere ez dela galtzen bermatzea.

Irizpen honen xedea da aztertzea ea (...)ak balio horien arabera jokatu zuen COVID 19ak sortutako pandemiari aurre egiteko txertaketa-protokoloen balizko ez-betetzeen berri izan

ondoren egin zituen jarduketetan, II.1. atalean adierazi denez. Hala ere, batzorde honen ustez, bere portaera baloratu eta aztertu ahal izateko, beharrezkoa da gogoeta eta balorazio tangenziala planteatzea, (...)aren jarduketak eragin zituzten gertaerei buruz.

13.- Egindako kontsultatik jasotako datuek eta informazioek, bai eta (...)ak berak Legebiltzarrean hainbat saiotan emandako informazioak ere, erakusten dute bi (...)etako zuzendariek ez zituztela bete txertaketa-jarraibideak, Osasun Ministerioak, Osasun Sailak eta Osakidetzak aldeztu aurretik ezarri eta jakinarazi zituztenak.

Bi (...)etako zuzendaritzek, (...)aren beraren iritziz, ez zituzten bete ezarritako protokoloak, txertoa jarri zutelako lehentasunezko txertaketa-taldeetan ez bazeuden ere. (...)aren kasuan, gainera, langile guztiei eman zitzaizen txertoa, eta, beraz, ez zen bete ezarritako prebentzio-irizpidea; alegia, ez gainditzea zerbitzu edo unitate bakoitzaren txertaketen % 50a.

(...)ak jakin zuenean bi zuzendariak ez zegoikienean txertatu zirela, zegoikien erantzukizuna beren gain hartzeko eskatu zien bi zuzendariari.

2021eko urtarrilaren 27an Legebiltzarrean egindako agerraldian adierazi zuenez, *"Pandemiaren une honetan, euskal gizarteak badaki zein den txertoen hartzaileen lehentasun-hurrenkera: egoitzetan dauden adinekoak, adineko horiek artatzen dituzten langileak eta, ondoren, osasun-zentroetan COVIDa duten edo ez duten pertsonak artatzen dituzten asistentzia-langileak"*.

Era berean, honako hau adierazi zuen: *"Kargu publikoa dugunok gizartearekiko erantzukizuna hartzen dugu, eta eredugarritasuna eskatzen zaigu gure lana egiterakoan. Pertsona horiek, une honetan eta bizi dugun testuinguruan, ez dira eredugarri izan. Hori da, eta ez besterik, jada beren lanpostuak ez betetzearen arrazoia"*.

14.- Adierazi den bezala, EJK-k Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta haren sektore publikoko kargu publikodunei eska dakizkiekeen jokabideak eta portaerak identifikatzen ditu, haien jarduera guztiak bat etor daitezkeen integritatearen balioarekin eta inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioekin, EJK-n jasotako balio eta printzipioen eskutik.

EJK-n jasotako balioei dagokienez, kasu honetan (...)aren jokabidearen integritateari dagokiona aztertu behar da, integritate hartuz, EJK-ren 4.1.1. artikuluan adierazten denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta haren sektore publikoko kargu publikodunak modu sistematiko eta iraunkorrean atxikitzea onestasan-, inpartzialtasun-, objektibotasun- eta gardentasun-printzipioetara, esparru juridikoa eta ingurune publiko horretan esku hartzen duten edo harekin erlazionatzen diren pertsona guztiak errespetatzea, eta bere eskumeneko gaiak kudeatzeko orduan erantzukizun-parametroen arabera jardutea.

Horren ondorioz, (...)aren jarduteko moduan erantzukizun-, inpartzialtasun-, objektibotasun- eta eredugarritasun-printzipioak errespetatu diren baloratu behar dugu.

EJKren 5.2.1.2 apartatuan adierazten denez, beren erabakien eta ekintzen erantzule izango dira eta betetzen duten karguari dagozkion kontrolak egin beharko dituzte, karguan dihardutela egindakoaren edo ez egindakoaren ondorioak beren gain hartuta, eta agintari nahiz instituzio eskudunak jakinaren gainean jarriko dituzte eta haiei lagunduko diete edozein jarduketa irregularren berri badute.

Batzorde honen ustez, (...)ak erantzukizunez jardun zuen ala ez baloratu eta zehazterakoan, kontuan hartu beharreko bi elementu objektibo daude, gutxienez.

Alde batetik, bizkortasuna, bere ustez arduradun publiko batentzat desegokiak ziren eta zuzentzen duen sailaren mendeko erakundeetan gertatu ziren gertakarien berri izan eta ordu gutxira neurriak hartu baitziren. 24 ordu baino lehen hartu ziren neurriak bi kasuetan.

Bestalde, kontuan hartu behar dira (...)ak gertakari horietan inplikaturako pertsonen dagokienez hartutako neurrien norainokoa eta inpaktua, zituzten ardurak berehala uzteko exijitu baitziren. Kasu batean dimisioa izan zen, eta bigarrenean, berriz, kargu-uztea.

Bi elementu horiek ikusita, Batzorde honen iritziz zalantzan jarri ezinikoa da (...)ak erantzukizun-printzipioa errespetatu zuela gertaerak aztertu eta baloratzerakoan, baita erabakiak hartzerakoan ere.

EJKren 4.1.3. artikulua adierazten duenez, kalitate instituzionalak eskatzen du estrategiak, helburuak eta baliabideak egoki lerrokatzea Goi Mailako Zuzendaritza Exekutiboaren egiturako maila politikoaren eta zuzendaritzako edo bitarteko mailen artean, eta, gainera, proiektuak eta informazioa partekatu eta konfiantzazko espiritua garatu behar da.

Interesdunak printzipio hori bete zuen kargu publikodunek txertaketa-protokoloak bete ez zituztela jakin zuenetik, eta berehala eskatu ziren zegokien erantzukizuna beren gain hartzeko.

Jokabide horren bidez, herritarrek erakundeengan eta arduradun politikoengan zuten konfiantza berreskuratu nahi izan zuen (...)ak, eta horixe da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritza EJK onartzera bultzatu zuen helburua.

15.- EJK-k, halaber, hura egituratzen duten printzipioen artean, inpartzialtasun-, zintzotasun- eta objektibotasun-printzipioak errespetatzea ezartzen du 5.1 artikuluan, interes partikular orotatik kanpoko irizpide independentea izan dezaten.

Erantzukizun publikoa duten pertsonen eskatzen zaien onestetasuna ere aipatu behar da. Ildo horretatik, (...)ak, txertaketa irregular horien berri izan zuenean, ez zuen ez onartu ez onetsi pertsona horien inolako mesede-traturik, uste baitzuten pribilegio-egoera bat edo justifikaziorik gabeko abantaila bat zela.

Jarrera horretaz haratago, kargu publikoa betetzean onestasunez jokatzek exijitzen du eta berekin dakar gauza izatea egiazkotasuna eta sinesgarritasuna adierazteko, eta ez engainatzea, nahastea edo estaltzea konpondu beharreko arazoak (EJK, 11.6 artikulua).

Onestasan-printzipio hori kargudunek gardentasunari buruz duten betebeharrari erabat lotuta dagoela ulertu behar da: herritarrei beren erabakiei buruzko informazio fidagarria eta osoa emateko betebeharra dute.

Egia esan, (...)ak zenbait aldiz eman ditu azalpenak bai gertaerei buruz, bai berak egindako jarduketei buruz. Esan bezala, gertatutakoaren berri izan eta hurrengo egunean, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean eman zuen horren berri; aldi berean, barne-ikerketak bat hasiko zela iragarri zuen, eta jakinarazi zuen (...)eko zuzendari kudeatzaileak uko egin ziola karguari eta (...)eko zuzendari kudeatzailea kargutik kendu zutela.

Astebete geroago, berriz agertu zen Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean, eta azalpen luze eta zabala eman zuen bi (...)etan gertatutakoei buruz.

Era berean, publikoak eta ezagunak dira Legebiltzarreko taldeek aurkeztutako ekimen parlamentarioen ondorioz Eusko Legebiltzarrean egindako esku-hartzeak eta emandako azalpenak.

16.- Interesdunak idazkian adierazten duenez, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean 2021eko urtarrilaren 27an egindako agerraldian, zalantzan jarri zen egun batzuk lehenago prentsaurreko batean eta agerraldi hartan bertan egin zituen adierazpenen egiazkotasuna; alegia, ez zekiela (...)eko arduradunek langile guztiei (eta ez osasun-arreta ematen zutenei bakarrik) txertoa jartzeko asmoa zutela.

Etika Publikorako Batzorde honi igorritako idazkian, (...)ak zein (...)ko zuzendari nagusiak (...)eko zuzendari kudeatzailearekin izandako elkarrizketak aipatzen dira (komunikabide batean filtratu ziren, gainera). (...)aren esanetan, elkarrizketa horietan "langile guztiak" aipatzean, beti uste izan zuten osasun-zentro guztietara bidalitako jarraibideekin bat etorritik txertatzea dagokien pertsonen buruz ari zirela, ez ospitaleko langile guztiei buruz eta egun bakar batean, bidalitako jarraibideen guztiz aurkakoa baita hori.

EPB honi ez dagokio interesdunaren adierazpenak zalantzan jartzea, "langile guztiak" aipatzean zertaz ari zen azaltzen duenean, eta ez dago zantzurik hori horrela ez dela ulertzeko bide ematen duenik; aitzitik, lehen adierazi den bezala, (...) Sailak eta (...)ak egindako txertaketa-protokoloetan ez da inondik inora aurreikusten ospitaleetako langile guztien txertaketa.

17.- Eredugarritasunaren printzipioak aipamen berezia merezi duela uste dugu. EJK-k adierazten duenez, kargu publikodunak, bereziki gobernu- edo erakunde-egituretan postu garrantzitsuren bat

betetzen badute, erakundearen ispilu dira, herritarrei bezala erakunde publiko horretan diharduten gainerako pertsoneri ere erakundearen irudia itzultzen diena, eta, horregatik, ez dute ezer egin behar edo egin gabe utzi behar horrek kalte egiten badio, kalterik txikiena izanda ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari, herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza gal ez dezaten.

Kontsultaren muinean hauxe dago: bi arduradun publikoren txertaketa-praktika desegokia, noiz-eta COVID 19ak sortutako pandemiari aurre egiteko txerto gutxi zegoen garai gogor batean.

Une hartan baimenduta eta eskuragarri zeuden txertoen eskasiak eta administrazio autonomikoez herritarrei eman ahal izateko zuten eta gaur egun duten txerto-kopuru mugatuak nolabaiteko urduritasuna eta kezka soziala sortu dute; urduritasun eta kezka hori areagotu egin da aipatutako (...)eetan izandako gertakari puntualen ondorioz, eta osasun-zerbitzu publikoaren osperari eta jardun onari kalte egin dio horrek. Horregatik, gure ustez, garrantzi berezia du (...)ak erantzukizunak eskatzean izan zuen eredugarritasunak, irmotasunak eta azkartasunak.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzorde honek hau erabaki du, aho batez.

ERABAKIA:

Etika Publikorako Batzorde honek uste du interesdunak ez dituela urratu EJK-n jasotako balio, printzipio eta portaerei buruzko aginduak, (...) eta (...)eetan COVID-19aren aurkako txertaketa-protokoloak ez direla bete jakin ondoren egindako jarduketetan.

Olatz Garamendi Landa

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 28a.